



Bertsolari Txapelketa Nagusia finalaurrekoetan

Bi itzuliko fasea da oraingoa, eta bertsolari bakoitzak jasotzen dituen puntuak metaketa hartzen da aintzat fase osoaren amaieran. Aurrerantzean, saio guztiak jarraitu ahal izango dira telebistaz nahiz Internetez.

Donibane Garazin du hurrengo hitzordua 2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiak. Aitor Etxebarriazarraga, Amets Arzallus, Asier Azpiroz, Haritz Mujika, Nerea Elustondo eta Oihana Iguaran izango dira kantuan, Zihara Enbeita gai-emaile lanetan dela. Larunbatean izango da saioa, 17:00etan, Jai Alain; sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian eskura daitezke, eta leihatilan egunean bertan 15:00etatik aurrera.

Pasa den asteburuan Elizondon piztu zen finalaurrekoak hasteko suziria. Fase honetatik aurrera, telebistaz nahiz Internetez jarraitu ahal izango da txapelketa; irratiz ere bai zenbait kasutan. EITBren eta Bertsozale Elkartearen lankidetzari esker, ETB4 telebista katean eta www.bertsoa.eus eta www.eitb.eus atarietan eskainiko dira finalaurrekoetako saioak, eta

emankizun bera eskainiko da beste zenbait hedabidetako webguneetan ere. Ilaski Serranoren gidaritzapean eta Jon Martinen iruzkinekin jarraitu ahal izango da emankizuna.

Bi itzuli

Fase hau bi etapatan bereiz daiteke: lehen lau saioek lehen itzulia osatzen dute, eta hurrengo hirurek bigarrena. Lehen itzuli honetan 24 bertsolarik hartuko dute parte, 2017ko txapelketako finalistak barne -orduko txapelduna salbu, finalerako txartela baitu zuzenean-, eta saio hauetako bakoitzeko irabazleak eta puntuazio altuena dutenak pasako dira bigarren itzulira: guztira, 18 bertsolari. Alegia, puntuazio baxuena duten sei bertsolariak geratuko dira finalaurrekoetako bigarren itzulira pasa gabe.

Bi itzulietan lortutako puntuazioak metatuko zaizkie lehen iragazkia pasatako bertsolariei, eta puntuazio altuena lortzen duten zazpiak sailkatuko dira finalera.

Finalerako sarrerak zozketan bazkideentzat

Abenduaren 18an izango da Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala Iruñean, eta sarrerarik gabe geratu bazara, aukera berri bat izango duzu datozen egunetan. Bazkideen artean finalerako sarrera bikoitz bat zozkatuko dugu: azaroaren 2ra arte har daiteke parte. Ez baduzu posta elektronikoz zozketaren berri jaso, sartu www.bertsozale.eus webgunera eta *Bazkideak* atalean izango duzu zozketaren inguruko informazioa.



**ENEKO ARAIZTEGI
AGIRRE KORTA**
Zaldibia, 2022-10-14
Udazkeneko V. Zapi Jantzeko
irabazlearen agurra



Doinua: Azken arnasa eman nahi nuke

Egin ote det nik hau lortzeko
behar zen hainbat meritu?
Egiari zor berdintsu zidan
lehen o laugarren gelditu.
Alaitzek deitu eta ez nintzan
aizu ni gutxi harritu
beti-betiko entzuten ditut
ta izen berriak begitu...
Bertsolaritzak gure plazetan
gazte gehiago behar ditu.

Eskoletan 29.700 ikaslerekin ari gara, bat-bateko metodologiarekin eta material berriarekin

Azken urteotan, metodologian, irakasleen formakuntzan eta material sorkuntzan ari gara indar egiten.



Baliabide ugariarekin lantzen da bertsoa ikasgelan. // XDZ – Jakub Szafranski

Bertsozale Elkartek 37 urte daramatza ikastetxeetan bertsolaritza lantzen, eskola orduetan. 2022-23 ikasturtea abiatu dugu, eta zazpi lurraldeetako 230 herritan 485 ikastetxe ditugu bidelagun; Bertsozale Elkarteko 50 irakasle ari dira gelaz gela eskolak ematen 29.700 ikasleri.

Azken urteotan, metodologian, irakasleen formakuntzan eta material sorkuntzan ari gara indar egiten. Ikasleek gelan bertso saio baten esperientzia bizi dezaten sustatzen ari gara: izan entzule roletik, sortzaile zein bertsolari roletik. Horretarako, haurrei eurentzat espresuki sortutako ereduak eskaintzen dizkiegu; gelaren aurrean bat-batean bertsotan egitea esperimendatu dezaten egoerak eskaintzen ditugu eta, zailtasun maila ezberdinetan, urratsez urrats, bertsotan egiteko gaitasuna lantzen dugu.

Ikastetxeetan bat-bateko metodologiarekin ari garenetik, ikasleengan motibazioa areagotu dela, ahokotasuna erdigunean jarri dela eta bertsotarako jariora hobetu dela ondorioztatu dugu ikastetxeek ikasturtero betetzen duten ebaluazio galdetegietan.

Metodologia ikertzen

Azken ikasturteetan bezala, aurten ere bertsolaritza ikas-irakasteko metodologia ikertzen jarraitzen dugu. Orain arte izan diren proposamen didaktiko guztiak, batetik; eta, bestetik, gaur egun martxan dugun metodologia bera. Azken horri dagokionez, irakasleek euren jardun errealean martxan jartzen dituzten estrategiak zeintzuk diren aztertzea da helburua.

Irakasleen formazioa, HUHEZLrekin

Bertsozale Elkarteko 50 irakasleak lurraldeetako mintegietan elkartzen dira, ikasgela barruko lana partekatuz; eta aldi berean, Batzorde Pedagogikoan biltzen dira lurraldeetako didaktika arduradunak, metodologia, formazio eta materialgintza gaiak lantzeko.

Ikasturte honetan, oinarritzko formazio ikastaroa ari gara eskaintzen Bertsozale Elkarteko irakasle hasiberrientzat.

Gainerako irakasleek formazioan sakontzen jarraitzen dute; aldiro, mintegietako kide batzuek HUHEZI fakultatean eskutik euren gela barruko lana berrikusteko aukera dute.

Bertsozale Elkarteko Batzorde Pedagogikoko lantaldea ere HUHEZLrekin formatzen ari da, nor bere lurraldeko irakasle mintegian bidelaguntza hori eskaini ahal izateko irakasle lankideei.

Irakasleak materiala sortzen

Bertsozale Elkarteko 50 irakasleko lantaldea bera da ondoren gelan erabiliko duen materiala bere eskutik sortzeko aukera duena. Batzorde Pedagogikoan diseinatu eta irakasle mintegiek egindako talde lanari esker, *Zozoak beleari...* *kopla bi!* materiala sortu berri dugu hiru formatutan: www.bertsoikasgela.eus atarian eskuragarri daude formatu digitalean, ikasleentzat ikasliburu formatuan eta irakasleak gelara eramateko karta jokoan bidez.

Ikaslekar hezkuntza argitaletxearekin elkarlanean

Ikaslekar hezkuntza argitaletxeak LHko lehen ziklorako *Kimu* ikasmateriala sortu du. Bertan, unitate didaktiko bakoitzera sarrera egiteko bertso sortak baliatu dituzte. Bertsozale Elkartetik prozesuan bidelaguntza eskaini diegu, eta egun, www.bertsoikasgela.eus atarian ere ikusgai ditugu bertso sorta horiek.

Bertso-eskoletan ere ikasturte berria

Ikastetxetik harago bertso munduan gehiago murgildu nahi duten gazteek bertso-eskolan izena emateko aukera daukate. Zenbait bertso-eskola lurraldeetako Bertsozale Elkartearen bidez kudeatzen dira, eta beste zenbait modu autonomoan; hurbilen duzun bertso-eskola zein den jakiteko, jarri harremanetan zure lurraldeko Bertsozale Elkartearekin eta lagunduko zaitugu.

Bertsolaritza hizkuntzalaritzaren ikuspegitik aztertzeke aukera

Euskaltzaindiak eta Bertsozale Elkarreak antolatu dugu ikerketa deialdia elkarlanean. Azaroaren 18ra arte aurkez daitezke ikerketa proiektuak.

Udaberrian sinatu genuen Euskaltzaindiak eta Bertsozale Elkarreak elkarlan hitzarmena; bost urterako lankidetzaz adostu zen, euskararen eta euskal kulturaren sorkuntzarako, sustapenerako eta zabalkunderako, besteak beste. Tartean adostu zen bertsolaritza hizkuntzalaritzaren ikuspegitik aztertzeke ikerketa bultzatzea, eta udazkenean ireki da proiektuak aurkezteko epea.

Orain arte egin gabeko ikerketentzat da deialdia; alegia, ikerketa proiektu bat da sarituko dena. Interesa duten ikertzaileek beren proposamena aurkezteko aukera izango dute azaroaren 18ra arte, eta ondoren, jasotzen direnen artean onena sarituko du epaimahaiak: 3.000 euro jasoko ditu hautatutako proiektuaren ikertzaileak.

Behin proiektua aukeratuta, ikertzaileak ekainaren 15era arteko epea izango du lana garatuta entregatzeko.

Proiektuak nola eta nora aurkezteko informazio osoa topatuko dugu www.bertsozale.eus eta www.euskaltzaindia.eus webguneetan.



Epaimahaiak hautatuko proiektua ekainaren 15erako garatu beharko du ikertzaileak. //XDZ

Haizea dator..., azaroan hasita

Sei saio izango dira guztira, azaroan hasi eta apirilera bitarte. Hirugarren urtea du egitasmoak.

Bertsolari gazteei bertsotarako plazak ematea da *Haizea dator...* ekimenaren helburua. Bertsolarien Lagunak elkarreak sustatutako ekimenak hirugarren urtea izango du aurten.

Azaroaren 18an izango da lehen saioa Itsasun eta hilero saio bat egingo da, apirilaren 7an Urruñan amaitu arte. Guztira, sei saio izango dira.

Halaber, herriko bertso-eskolei ikusgarritasuna ematea ere bada helburua; izan ere, bertso-eskolako kideek antolatzen dituzte saioak.

Gorde egunak egutegian!

Hirugarren urtea du egitasmoak. //XDZ



Puntu jarrita

GORKA PAGONABARRAGA AGORRIA

Ederrak, Lazkano, benetan ere, udaberritik udarako tarte horretan izan genituen gau-giro eta tertuliak. Egoeraren ederrak eraginda idealizatu nituen akaso, baina Durangaldeko Kopla Txapelketaren ostean, ordu txikitik, bertso ikaragarriak bota zenituela dut gogoan; ederto jo zenigun adarra zure estilo finarekin. Izango ez du ba, noizbehinka bertsozara itzultzeko gogo, horrelako bertsolariak! Ordukoan lez luzatu zitzaigun gaua besteren batean ere, hartaz eta honetaz berbetan, eta puztuta itzuli ginen etxera, mundua konpondu genuelakoan. Esango nuke atzera elkartzeko aitzakia bilatu beharko dugula, mundua betiko bide okerretan dabil eta.

Gaitzak gaitz, pozgarria zait erreleboaz diozuna. Egia da, gure eskualdean behintzat, talde polita dagoela bertsoaren inguruan eta bagarela hainbat gazte plazan apur bat muturra sartzeko zortea izan dugunak. Pasioz bizi dugu zuek erakutsi zeniguten hitzaren jolas hau, eta esango nuke, ekite horretan geure inguruko jendea bertsozaletu izan dugula. Euskararen egoerak eta helmenak mugatuta betiere, baina sasoiko dago bertsoa.

Durangaldeaz ari naiz, baina alde denetan kontuak ez dira berdinak izango eta Irun aldera botako diot puntuak, punturik erantzun gabe uzten ez duen Igauri Lopetegiri. Gasteizen egin ginen lagun Igauri eta biok, ikasle pisu batean pandemia betean, kalera irten ezin eta gauak etxe barruan luzatu behar izaten ziren garaian. Makina bat bertso eskola egin ditugu harrezkero, zenbat bertso txar ez ote dugun bota. Baina elkar ondo ezagutu dugun arren, ez gara sarri joan bata besteren parajeetara. Esan ba, Igauri, zelan jaso zenuten bertsoa eta ze diagnostiko egingo zeniokkeen zure eskualdeari. Badaukazu nahi beste aukera bertsozarako? Zer egin nahi zenuke plazan?

Koplak

Ahostegunak eta Ahots Baten egingo dira udazkenean

Mintzola egitasmoaren ardura Euskaltzaindiak hartuta, erakundearen eskutik gauzatuko dira Ahostegunak eta Ahots Baten proiektuak. Antzerkiaz, bertsoaz, kantuaz eta literaturaz gozatzeko aukera ematen diete gazteei bi proiektuek, bakoitza adin tarte bati zuzenduta. Ahots Baten sormen egonaldia aste honetan bertan gauzatuko da, baina Ahostegunak jardunaldietarako izen-ematea irekita dago oraindik Euskaltzaindiaren webgunean.

Poto-Finixa



Lan deialdia Xenpelar Dokumentazio Zentroan

Koordinatzailea behar du Xenpelar Dokumentazio Zentroak; zehazki, bertsolaritza datu-basearen garapenean eta dokumentazio zentroko koordinazio lanetan ariko da hautatutako pertsona. Interesa duenak Curriculum Vitae eta motibazio gutuna bidali behar ditu azaroaren 13a bukatu baino lehen (egun hau barne). Lan deialdiaren xehetasunak www.bertsozale.eus webgunean daude.

DIHANA IGUARAN - AMAIUR LULUAGA

AMARAUN

IRUNEZ IRADUN

Lanku
kultu zentruak

Kontrataziorako
marketina@lanku.eus helbidera idatzi
edo 675.716.472 telefonora deitu

PUBLIZITATEA